

ASTEJORRAN

Nafar Demokraten Elkargunea

Alderdi berri bat sortu zaigu Euskal Herrian, Juan Cruz Alliren jarraitzaileen alderdia, alegia. Nafarroa berez da berezi eta aparta. Nafarroako politikagintzan, hiru probintzietakoan ez bezala, alderdi espainiazaleen nagusitasuna da ezaugarririk bistakoena. Nagusitasun horrek Nafarroan abertzaletasunak duen ahulezia politikoa eta euskaltzaletasunak azken urteotan Nafarroako gizartearen jasan duen beherakada isladatzen ditu.

Izan ere, nafar eskuindarrak, joan den mendean zehar ere, eskuindar gogorrenak izanak dira Estatu osoan; Nafarroako PPeko ordezkariak, Del Burgo eta abar, euskal kutsu ororen aurkako jarraitzaile bortitzena azaldu dutenak izan dira azken hogeitau urteetan, eta aurkakotasun horretatik gizendu dute beren pisu eta beren indarra, Nafarroako PSOE bera ere horretaratzeraino.

Zenbait urte eman zituen nafar eskuinak antolatzen, UPNren eta PPren arteko 'Bavariako ituna': hots Estatu osorako PPren kanpaiaren agertzea eta Nafarroan UPN gisa aritzea. Katramila guztientzako irtenbide onurakorra zirudien eta ongi baino hobeto etorri zaie orain arte, eta Juan Cruz Alliren buruzagitza izan da, agian, operazio honen arrakastaren arrazoiatariko bat.

Juan Cruz Alli baita gaurko orrialde honen protagonista. *Nafarroako politikagintzaren berritzaile, haize fresko, politikari fin eta argi,*

eskuindar moderno, eta beste hainbat aipamen egin izan zaizkio bere agintealdian.

Euskal Herriarekiko Juan Cruz Allik agertu duen joera ere aipagarria da. Euskal kontuekiko zeinu txiki baina esangarriak han-hemenka zabaldu ditu, EAeri buruzko aurkakotasuna aipaldi eta lankidetzak imintzioak egin ere bai, eta Nafarroako jende-talde jakin batzuen normaltasun eta aurrerabide egarria bete egin du.

Zeinu horiek, gehienetan, azal hutsa izan dira, apenas marmirik gabeak: txapel jaztea, euskara beldurgarriari hitz gutxi batzuk jaulkitzea, eta halakoak. EAerekiko harremanetan, berriz, ezin uko pauso garrantzitsuak eman dituela, eskuinak betidanik aldarrikatutako 'bereizketa osoaren' ildotik atera gabe, hala nola Akitania eta EAerekin izenpetutako zenbait akordio. Nafarroako abertzaleen jarrera bikoitza izan da. Juan Cruz Alliren eta mezuek entzungozo gertatu zaizkie, batetik; baina tran-



ENEKO
OREGI GOÑI

HBk, bereziki,
Alliren estilo
berri honetan
aurkitu du
PSOEkiko
aurkakotasuna
sendotzeko
oinarri.

tsizioko lehen urteetan euskaltzale zirenak bereganatu dituen neurrian, lehiakide ikusi dute.

HBk, bereziki, Alliren estilo berri honetan aurkitu du PSOEkiko aurkakotasuna sendotzeko oinarri. Errazago izan baitzaio UPN eta PSOEn artean ez aukeratzea, eskuindarrak hañi antieuskaldun agertu ezean.

Aste honetako berria, dena den, Alliren jarraitzaileek sortutako alderdi berria dugu, Nafarroako seigarren alderdia, honez gero, 6 bat legebiltzarkide iragartzen baitzaizkio Nafarroako Parlamentuan.

Demokrata bezala poztu egiten gaitu alderdi berriak, euskaldun bezala, abertzalea ez den alderdi batek kezkatzen eta abertzale garez, Nafarroako politikan indar modernoago bat, euskaltasunaren aurkakotasun txikiagoarekin eta eskuindarren nagusitasuna gutxituko duenak, itxaropenbideak ematen. Geroak esango. Agur t'erdri Nafar Demokraten Elkargunea.

PERIODIKOA LEITUZ
ILUSTRATZEN GARA

Martxelo Otamendi

Bat-bateko kezkak

Badirudi mundu guztiak zekiela Euskaltzaindiaren kudeaketa txarrarena. Denon mirespena jasotzetik egin behar ez denaren ereduia izatera pasatu da hila-beteko epean. Badaukate, egunotan diru murrizketaren alde azaldu direnek esandakoaren gaineko karikatura eginez, ekonomia fakultateetako irakasleek ikasgai berria: 'Nola kudeatu hizkuntza akademia bat'. Ez zaizkie, testu liburua egiteko orduan boluntarioak, besterik da adituak, faltako.

«Ekin eta jarrai... baina diru faltan noraino» izenburua jarri zion 'Argia-k' aste hasierako aleko erreportariari. Lan berean Endrike Knörrek «1994ko urte guztian ez da bildu herri agintek eta Euskaltzaindiak osatzen duten batzordea» salatu zuen. Jakina da EAeko Gobernuak Kultura sailekoak haserre dardela, oso gainera, Euskaltzaindiak, edo bertako batzuek, arazoa kaleratzeko erabili duten girote-teknikarekin, hau da, filtrazioak komunikabideetara eta txostenak alderdi politikoetara, aurrekontuak eztabaidatzen hasteko garaian. Baina, oraingoz behintzat, zaila da aurrekoa bermatuko duen adierazpen publikorik aurkitzea hemerrotean. Kultura Sailak ez omen dio Euskaltzaindiari mikro eta kamera aurrean belarririk tiratuko egingako 'erreboltarengatik'. Egitekotan mahai baten inguruan egingo dio eta lekuko gutxiarekin. Ez dator bat igandeko 'Egin-eko' editorialgilea gorago aipatutako 'erreboltaren' teoriarekin: «Dudarik gabe diskrezioa eta duintasunarengatik atzeratu da horrenbeste egoera honen ezagutza publikoa, baina egia da benetako eskasia jasan ezina izan arte itxaron dela».

EAJko Juaristi kexu azaldu zen atzo goizeko 'Euskadi Irrati-ko' tertulian akademiaren kudeaketaz: «Ez ditu esku artean zituen lanak agindutako epean bukatu, eta langileak kontratatzeke orduan eta soldatak erabakitzeke orduan, baita soldata igoeretan ere, oso arin jokatuko du». Antzeko argudioak —luma gaizto batek Juaristek tertuliarari joan aurretik M. Atxagarena buruz ikasi zuela idatziko luke— erabili zituen asteartean M. Atxagak bere zutabearen: «Euskaltzain zenbaitek baino gehiago maite dugulako ez ditugu Euskaltzaindiaren barruko hautsak leihotik kalera astindu orain arte». Nor, edo nortzuk, ote dago «ditugu» maiestatiko horren atzean? Atxagari galdetu beharko ea argitzen digun. Baina honela segitzen du 'Deia-ko' zutabegileak: «88rako amaitu behar zuen Orotariko Euskal Hiztegia zenbat luzatu zaien eta noiz bukatuko duen ez daki, bederatzita lagun horretan aritu arren. Euskal Herriko Hizkuntz Atlas ez da sekulan burutzen, nahiz eta lau pertsona erabat horretarako izan». Tertulia berean HBko Valek «edozein herritan egiten den espaloien aurrekontua da Euskaltzaindiak bere lanak egiteko behar duen dirua» esanda adierazi zuen, bere ustez, instituzioek Euskaltzaindiarekin duten zuhurkeria.

Garai batean komunikabide honen inguruko eztabaida batean Ramon Labaienek euskalgintzaren aurrekontugintzan historikoa egin zen «bigarren eskuko tanketa baten dirua da hauek behar dutena» hura bota zuenetik gol asko sartu dizkiete lehen mailako euskal ekipoei. Nola aterako da Euskaltzaindia egunotako partidutik?

HARA!

Mattin

